

AURKIBIDEA:

1. Aurkezpena
2. Eraikal 1 eta 2 direlako balantzea eta Eraikal-3ren aurkezpena
3. Etxebizitzetako zarata. Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko Akustika Laborategiaren Egiaztapena
4. Eraikintzako Informazioaren Teknologia
5. Enpresa-topaketak
6. Hemeroteka
7. Itaun-ontzia

SUMARIO:

1. Presentación
2. Balance de Eraikal 1 y 2, y presentación de Eraikal-3.
3. Ruido en viviendas. Acreditación del Laboratorio de Acústica del Gobierno Vasco en Vitoria - Gasteiz
4. Tecnologías de la Información en la construcción
5. Encuentros empresariales
6. Hemeroteka
7. Buzón de consultas

1. Aurkezpena

Zuk eskuetan ERAIKAL BERRIAK lehenengo informazio-aldizkaria duzu, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren ekimen berria, Eraikintzaren Arloaren zerbitzurakoa. Ekimen hori Eraikal kalitatea sustatzeko eta etengabe hobetzeko programako jardueren barruan sartuta dago.

ERAIKAL BERRIAK eraikintzaren arloa etengabe hobetzea sustatzeko enpresen, elkarten eta administrazioaren arteko topagune bihurtzeko sortua da. Beraren helburu nagusia honako hau da: enpresentzat, elkarreentzat eta bertan sartuta dauden beste agente batzuentzat informazio eta itaun base bat sortzea eta aurrerapen eta garapen teknologiko berriei eta beraien arloko eraginari behatzeko toki bezala balio izatea.

Aldizkari hau Sailaren Web orrialdearen bitartez etorkizunean atzitu ahalko denaren hasiera da, eta gauza batzuei buruzko informazioa jarriko du eraikintzaren arloko enpresen zerbitzura. Gauza horiek honakook dira:

- Material edo prozesu berriei buruzko albiste eta informazio tekniko interesgarriak.
- Kudeaketako praktikarik onenak hautatu eta zabaltzea.
- Esperientziak elkarri trukatzeko enpresa topaketak eta tailerrak.

ERAIKAL BERRIAK atal berezia eskainiko die teknologia berrien garapenari, informazioaren gizarteari eta horren guztiaren erakintza-arloko eraginari.

1. Presentación

Tiene usted en sus manos el primer boletín informativo de NOTICIAS ERAIKAL, una nueva iniciativa del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco al servicio del Sector de la Construcción, enmarcada dentro de las actividades del programa de promoción de la calidad y la mejora continua: Eraikal.

NOTICIAS ERAIKAL nace con vocación de convertirse en un punto de encuentro entre las empresas, asociaciones y administración para promocionar la mejora continua del sector de la construcción. Su objetivo principal es el de generar una base de información y consultas para las empresas, asociaciones y otros agentes implicados, sirviendo además de observatorio de los nuevos avances y desarrollos tecnológicos y su impacto en el sector.

Este boletín es el embrión de lo que en el futuro será accesible a través de página web de Departamento, y pondrá al servicio de las empresas del sector de la construcción información acerca de:

- Noticias e informaciones técnicas de interés sobre nuevos materiales o procesos.
- Selección y difusión de las mejores prácticas en gestión.
- Talleres y encuentros empresariales para intercambio de experiencias.

NOTICIAS ERAIKAL dedicará también un apartado especial al desarrollo de las nuevas tecnologías, la sociedad de la información y su influencia en el sector de la construcción.





2. Eraikal 1 eta 2 direlakoan balantzea eta Eraikal-3ren aurkezpena

2000ko urriaren 26an aurkeztu zen Eraikal 1 eta 2 programen balantzea. Enpresetako, enpresa-elkarteetako eta eraikintzaren arloan garrantzia duten beste erakunde batzuetako 140 teknikari eta kudeatzaile baino gehiago joan ziren aurkezpen horretara.

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko burua den Ormazabal jauna izan zen ekitaldian buru, Eusko Jaurlaritza baita Eraikal sustatzen duen erakundea. Jardunaldiaren koordinatzaile bezala jardun zuen Enrique González UNECAko kudeatzaile jaunaz gain Arrizabalaga, Alonso eta Lagadec jaunak izan zituen bertan mahaikide. Azken hiru jaunok Lagunketa, Construcciones Ubiri eta Construcciones Sukia enpresen ordezkari gisa bertaratuta ziren.

Gainera, 90etik gora erakunde eta enpresatako 140 bat pertsona jardunaldi-ratu ziren. Izan ere, arloa kalitateaz eta kudeaketan hobetu beharraz jabetu da eta kalitatea interesatzen zaio.

Ormazabal jaunak EHAEn 1998az geroztik burutzen ari den proiektuen balantzea azaldu zuen. Modu berean, produktuotako batzuei buruzko txostena zuen agiri bat aurkeztu zuen, baita Eraikal-3 dekretu berria ere. Dekretu horren bitartez, 150na M. pezeta jasoko dute kalitatea eta ingurugiroa hobeto kudeatzeko eta arloan lan-arriskuak prebenitzeko laguntzak emateko ekimen berriek.



Arrizabalaga, Alonso eta Lagadec jaunek beraien enpresetan garatutako proiektuak azaldu zituzten, bertaratutako jende arazo interesatu zitzaizkionak:

- Lagunketa: hornitzaileetan kalitate-sistemak ezartzeko traktio-proiektua.
- Construcciones Ubiri: ISO 14001 ingurugiroa kudeatzeko sistema ezartzea.
- Construcciones SUKIA: obretan agiriak kudeatzeko intranet bat garatu eta ezartzea.

2. Balance de Eraikal 1 y 2, y presentación de Eraikal-3

El pasado día 26 de octubre tuvo lugar la presentación del balance de los programas Eraikal 1 y 2, con asistencia de más de 140 técnicos y gestores de empresas, Asociaciones empresariales y otras entidades de importancia en el sector de la construcción.



El acto fue presidido por el Sr. Ormazabal, Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, entidad promotora de Eraikal. En la mesa la acompañaron el Sr. Enrique González, gerente de UNECA, que actuó de coordinador de la jornada y los Sres. Arrizabalaga, Alonso y Lagadec, en representación de las empresas: Lagunketa, Construcciones Ubiri y Construcciones Sukia respectivamente.

A la jornada acudieron además cerca de 140 personas de más de 90 entidades y empresas diferentes, prueba de la sensibilización e interés que existe en el sector por la calidad y la mejora en la gestión.

El Sr. Ormazabal realizó un balance de los proyectos que se están llevando a cabo desde 1998 en la CAPV, y presentó un documento con la memoria de algunos de esos proyectos, así como el nuevo decreto **Eraikal-3** que destinará 150 Mpts a las nuevas iniciativas de ayudas a la mejora en la gestión de calidad, medio ambiente y prevención de riesgos laborales en el sector.

Los Sres. Arrizabalaga, Alonso y Lagadec expusieron los proyectos llevados a cabo en sus empresas, resultando de gran interés para el público asistente.:

- Lagunketa: Proyecto tractor para la implantación de sistemas de calidad en proveedores
- Construcciones Ubiri: Implantación del sistema de gestión medioambiental ISO 14001
- Construcciones SUKIA: Desarrollo e implantación de una intranet para la gestión documental en obras.

Ormazabal sailburu jaunak bere hitzaldian azpimarratu zuen ezen gure enpresentzat oso garrantzitsua zela kalitatea kudeatzea; izan ere, horrek *“bereizkuntza-marka lortzeko moda iragankorra izateari utzi dio eta bezero eta Gizarte zorrotz eta arduradunen beharkizuna da”*.

“Gero eta garrantzi handiagoa du enpresa-jarduera guztietan gure ingurunea eta langileen osasuna errespetatzeak. Hori dela eta, ERAIKALen helburuak dira honako bi arloak ere: ingurugiro-kudeaketa bultzatzea eta lan-arriskuak prebenitzea. Egin-eginean, elkarlehia- eta gaitasun-beharkizunok ezinbestekoak dira etorkizunerako”.

Gainera, sailburuak gogora ekarri zuen ezen ERAIKAL 1996-1999rako Etxebizitza Planeko ekintzen barruan sartuta zegoela: plan horren barruko atal bat *“Eraikintzaren arloan kalitatea bultzatze”*aren gainekoa zen. 2000 eta 2003

bitarteko

Etxebizitza Plan
Zuzentzaile

berrian berretsita dagoenez, arloko enpresen kalitatearen kudeaketa bultzatu behar da. Plan horrek Kalitatearen, Ingurugiroaren eta Segurtasunaren Kudeaketan Integraztearen alde egiten du.

Sustapen-plan horretako laguntzak 1998ko irailaren 1eko, 1999ko urriaren 27ko eta 2000ko urriaren 31ko aginduen bitartez antolatu dira 150 M pezetako, 60 M pezetako eta 150 pezetako estaldurekin hurrenez hurren.

ERAIKAL **trakzio-enpresa eta enpresa-elkarteen** bitartez kudeatuta dago. Enpresa eta elkarteok erakunde bakoitzaren beharrezko laguntza eta motibazioa ematen dute. Ia 220 dira dagoeneko Eraikal-en sarturiko proiektuen barruan kudeaketa-sistemaren baten ezarpenerako prozesuetan dauden enpresak. Kopuru hori handituko da Eraikal-3 abiaraztean. Prozesu horietariko gehienak kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzekoak dira Eraikal aurkezteko jardunaldian, Etxebizitza Sailak egindako memoria bat eman zen proiektuotako batzuen etsenpluekin. Memoria hori enpresek eskuratu ahaliko dute, baldin eta probintzia bakoitzeko arloko enpresa-elkarteetan (UNECA, ASCOVIn edo ASCONGIn) edo ADC enpresaren Donostiako egoitzan eskatzen badute.

ERAIKALen proiektuetan burutzen ari diren lan motak honakoak dira:

- ISO 9000 arauetan oinarrituriko kalitate-sistemak ezartzea.
- “K-21” mikroenteentzat kalitate-eredua prestatu eta ezartzeko proiektuak.
- Ingurugiroa kudeatzeko proiektuak, ISO 14000 arauan oinarrituak.
- Lan-arriskuak prebenitzea kudeatzea.

En su exposición, el Consejero, Sr. Ormazabal, destacó la importancia que para nuestras empresas tiene la gestión de la calidad, que *“ha dejado de ser una moda pasajera para obtener un sello de distinción, sino un requisito de unos clientes y una Sociedad exigentes y responsables”*.

“La creciente importancia de tener presente en todas las actividades empresariales el respeto por nuestro entorno, y la salud de los trabajadores, ha hecho que los objetivos de ERAIKAL se amplíen también a estas dos áreas: el impulso de la gestión medioambiental y la prevención de riesgos laborales; requisitos indispensables de competencia para el futuro”.

Además, el Consejero recordó que ERAIKAL está englobado dentro las acciones del Plan de Vivienda 1996-99, que dedicaba uno de sus apartados al *“impulso de la calidad en el sector de la construcción”*. El nuevo Plan Director de Vivienda 2000-2003 se reafirma en la promoción de la gestión de la calidad en las empresas del sector, y apuesta por la Integración en la Gestión de la Calidad, el Medio Ambiente y la Seguridad.

Las ayudas de este plan de promoción se han articulado a

través de las ordenes de 1 de septiembre de 1998 con una cobertura de 150 Mptas, de 27 de octubre de 1999 con 60 Mptas y 31 de octubre 2000 con otros 150 Mptas.



ERAIKAL está gestionado a través de **empresas tractoras y asociaciones empresariales**, que proporcionan el apoyo y motivación necesario para embarcarse en la implantación de sistemas de gestión adecuados a las necesidades de cada organización. Son ya cerca de 200 las empresas que, dentro de los proyectos incluidos en Eraikal, están en procesos de implantación de algún sistema de gestión, en su mayoría de calidad; número que se incrementará con la puesta en marcha del Eraikal-3.

En la jornada de presentación de Eraikal se entregó una memoria elaborada por el Departamento de Vivienda con ejemplos de algunos de estos proyectos. Esta memoria está a disposición de las empresas que la soliciten en las asociaciones empresariales del sector de cada provincia (UNECA, ASCOVIn y ASCONGIn), y en ADC en su sede de Donostia.

Los tipos de trabajos que se están llevando a cabo en los proyectos de ERAIKAL son:

- Implantación de sistemas de calidad basados en las normas ISO 9000
- Proyectos de formación e implantación del modelo de calidad para micropymes “K-21”.
- Proyectos de gestión medioambiental basados en la norma ISO 14000
- Gestión de prevención de riesgos laborales.



3. Etxebizitzetako zarata

VISESA Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoa aitzindari agertu da, etxebizitzetako erosotasun akustikoarekin loturiko alderdiak beren proiektuetara sartu baitu. Oraingo honetan aipa dezakegu Labeinek Bizkaiko Derion Bilboko aireportutik hurbil eraiki beharreko promozio berri batean isolamendu akustikoa hobetzeari begira egindako azterketa. Azterketa horretan, hegazkinen zarata-eremuko eta, hortaz, promozio berriaren inguruetako neurketak Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren Gasteizko akustika-laborategiko entseiekin uztartu dira, zertarako eta ibiltzeko moduko gainaldearen eta fatxadaren itxituren jokaera ezagutzeko. Azkenik, etxebizitzetan barrualdera hegazkinen zarata gutxiago pasatzeko hobekuntzak proposatu ziren, orri-beiren bitarteko konponbideak aukeratu zirelarik.



3. Ruido en viviendas

La Sociedad Pública del Gobierno Vasco VISESA se presenta como pionera al incluir en sus proyectos aspectos relacionados con el confort acústico en las viviendas. En esta ocasión podemos citar el estudio realizado por Labein en relación con la mejora del aislamiento acústico en una nueva promoción a construir en Derio (Bizkaia), próxima al aeropuerto de Bilbao. En el estudio se han combinado mediciones en campo del ruido de aviones en las proximidades de la nueva promoción con ensayos en el laboratorio de acústica de I Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco en Vitoria, para conocer el comportamiento de los cerramientos de fachada y cubierta transitable. Finalmente se propusieron mejoras para atenuar la transmisión de ruidos de aviones al interior de las viviendas, optando por soluciones de vidrios laminares.

Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko akustika-laborategiaren egiaztapena

2000ko urtarrilaren 28an, ENAC EGIAZTAPEN ERAKUNDE NAZIONALAK egiaztapen teknikoa eman zion EUSKO JAURLARITZAREN ERAIKINTZAREN KALITATEAREN KONTROLERAKO LABORATEGIKO AKUSTIKA EREMUari.

Acreditación del laboratorio de acústica del Gobierno Vasco en Vitoria-Gasteiz

A fecha 28 de Enero del año 2000, la ENTIDAD NACIONAL DE ACREDITACION, ENAC, otorgó la acreditación técnica al AREA DE ACUSTICA DEL LABORATORIO DE CONTROL DE CALIDAD DE LA EDIFICACION DEL GOBIERNO VASCO.

AIRETIKO ZARATAREN ISOLAMENDU AKUSTIKOAK

- Eraikuntza-elementu Bertikalak:
 - Itxiturak
 - Aurretik fabrikaturiko panelak
 - Leihoak, atek eta elementu txikiak
- Eraikuntza-elementu Horizontalak:
 - Forjaketa sinpleak eta konposatuak (arinak eta astinak)

ERAGIN-ZARATAREN ISOLAMENDUA

- Eraikuntza-elementu Horizontalak:
 - Forjaketa sinpleak eta konposatuak (arinak eta astinak)

ABSORTZIO AKUSTIKOAK

- Soinua Absorbatzeko Materialak:
 - Material Porotsuak
 - Panel absorbatzaileak
 - Sasisabai akustikoak
 - Elementu bolumetrikoak

LURZORUA NORMALIZATUTAKO FORJAKETA ASTUNAZ ESTALIZ ERAGINEN ZARATA TXIKITZEA

- Lurraren estaldura eta xafra elastikoak.



AISLAMIENTO ACUSTICO AL RUIDO AEREO

- Elementos Constructivos Verticales:
 - Cerramientos
 - Paneles prefabricados
 - Ventanas, puertas y elementos pequeños
- Elementos Constructivos Horizontales:
 - Forjados simples y compuestos (ligeros y pesados)

AISLAMIENTO AL RUIDO DE IMPACTOS

- Elementos Constructivos Horizontales:
 - Forjados simples y compuestos (ligeros y pesados)

ABSORCION ACUSTICA

- Materiales Absorbentes Acústicos:
 - Materiales porosos
 - Paneles absorbentes
 - Falsos techos acústicos
 - Elementos volumétricos

REDUCCION DEL RUIDO DE IMPACTOS TRANSMITIDOS A TRAVES DE REVESTIMIENTO DE SUELO SOBRE FORJADO NORMALIZADO PESADO

- Revestimiento de suelo y láminas elásticas

AIRETIKO ZARATAREN ISOLAMENDUA ETA ABSORTZIO AKUSTIKOAK

- Zarataren aurkako pantailak.

AISLAMIENTO A RUIDO AEREO Y ABSORCION ACUSTICA

- Pantallas Anti-Ruido

4. Eraikintzaren Arloko Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia (IKT direlakoak)

Arloko IKTen aplikazioa ez da berria, hau da, teknologia heldurik daude eta aplikazio asko erabiltzen dira.

Hala ere, Informazioaren Gizarteak, azpiegiturak eta erakunde-ekintza eta merkatua oro har hartu/nazioartekotzea maila guztietara (Europar Batasunera, Estatura, Autonomietara, Toki Izaletara eta beste Erakunde eta Elkarte batzuetara, gremio edo arlokako elkarteetara) zabaltzearekin batera, beste faktore bat sartzen du erabilera-prozesuan.

Horrek Eteak ukitzen ditu bereziki, hobekuntzari edo eraberriketari begira, obrak eta eraikinak egiteko produkzio-katearen zati baita.

Esku hartzen duten agente ugarien integrazio eta komunikazio handiagoa dakar. Agente horiek honakook dira: sustatzailea, diseinatzailea, proiektugilea, eraikitzailea, gremioak, material-eta ekipo-hornitzaileak, banka, herri administrazioa, lanbide elkargoak, ganbarak, elkarteak, erakunde teknologikoak, en tseiu-laboretegiak eta abar.

Komunikazio-zerbitzu aurreratuak (informaziokoak, merkataritza elektronikoa, teleprestatuntza, telelana eta abar) aurki daitezke Enpresen edo Erakundeen Web-site-an (Herri Administrazioarenean, Bankarenean, Fabrikatzaileenean, Eraikintzako enpresenean eta abarrean) edo Atari orokorretan edo arlokoetan.

IT sartzen duten beste aplikazio batzuk bulego edo enpresa birtualetan erabiltzen dira eta prozesuen faseetan propioki sartzen dira: proiektuan, eraikuntzan eta ustiapenean.

4. Tecnologías de la Información y Comunicaciones (TIC's) en el Sector de la Construcción

La aplicación de las TIC's en el Sector no es nueva, es decir, las tecnologías están maduras y existen múltiples aplicaciones en uso.

Sin embargo, la Sociedad de la Información, con el despliegue de globalización/internacionalización del mercado, infraestructuras y la acción institucional a todos los niveles (Unión Europea, Estado, Autonomías, Entes Locales y otras Instituciones y Asociaciones gremiales o sectoriales), introduce un nuevo factor en el proceso de uso.

Principalmente afecta a las Pymes en lo que supone de mejora o innovación al formar parte de la cadena de producción en la realización de obras y edificios.

El proceso implica una mayor integración y comunicación de los múltiples agentes que intervienen: promotor, diseñador, proyectista, constructor, gremios, suministradores de materiales y equipos, banca, administración pública, colegios profesionales, cámaras, asociaciones, institutos tecnológicos, laboratorios de ensayo, etc.

Los servicios avanzados de comunicaciones (informativos, comercio electrónico, teleformación, teletrabajo, etc.) pueden encontrarse en Web-site Empresariales o Institucionales (Administración Pública, Banca, Fabricantes, Constructoras, etc.) o en Portales generales o sectoriales.

Otras aplicaciones que incorporan TI se emplean en las llamadas oficinas o empresas virtuales y se integran propiamente en las distintas fases de los procesos: proyecto, construcción y explotación.

INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIETAKO KONPONBIDEAK SOLUCIONES EN TECNOLOGÍA DE LA INFORMACIÓN

1.- PROIEKTUA PROYECTO	2.- LIZITAZIOA ETA ERAIKUNTZA LICITACION Y CONSTRUCCION	3.- ARTAPENA ETA USTIAPENA CONSERVACIÓN Y EXPLOTACIÓN
<ul style="list-style-type: none"> • Aplikazioak konpartitzea Compartición Aplicaciones • Posta Elektronikoa Correo Electrónico • Konpartituriko proiektuaren espedientea: Expediente de Proyecto Compartido: <ul style="list-style-type: none"> - Aurrekontuak - Presupuestos - Planoak - Planos - Plangintza - Planificación • Workflow eta Proiektuak Garatzeko Metodologia Workflow y Metodología de Desarrollo de Proyectos 	<ul style="list-style-type: none"> • Aplikazioak konpartitzea Compartición Aplicaciones • Kabinete Birtuala Gabinete Virtual • Posta Elektronikoa Correo Electrónico • Konpartituriko proiektuaren espedientea: Expediente de Proyecto Compartido: <ul style="list-style-type: none"> - Entseiuak - Ensayos - Eskariak jasotzea - Recepción de Pedidos - Plangintza - Planificación - Ziurtapenak - Certificaciones - As-bulit - As-bulit • Workflow eta Proiektuak Garatzeko Metodologia • Workflow y Metodología de Desarrollo de Proyectos • Bideokonferentzia Videoconferencia • Eskaintzak kudeatzea Gestión de Ofertas 	<ul style="list-style-type: none"> • Bideokonferentzia Videoconferencia • Aplikazioak konpartitzea Compartición Aplicaciones • Posta Elektronikoa Correo Electrónico • Inbentarioa kudeatzea Gestión de Inventario • Eskaintzak kudeatzea Gestión de Ofertas • Workflow eta Proiektuak Garatzeko Metodologia Workflow y Metodología de Desarrollo de Proyectos



5. Enpresa-Topaketak

EHAEn egoitza eraikitzeko arloko enpresak etengabe hobetu eta kalitatea kudeatzeko sustatzeko Eraikal programako jardueren barruan, arloarentzat garrantzirik handienekotzat hartzen diren alderdien inguruko enpresa-topaketak burutzeko asmoa dago.



Topaketotan garrantzi eta esperientzia handiko parte-hartzaileak izango ditugu, topaketotara joaten diren enpresarioen eta teknikarien informazio-eskariari erantzungo dioten eta balioa ekarriko dutenak.

EHAeko Eraikintzaren Arloaren Txostenaren 2000ko abuztuko azken edizioan ageri denez, ahalegin handiak egin behar dira kalitatea eta ingurugiroa hobeto kudeatzeko eta lan-arriskuak prebenitzeko.

Horregatik, 2001ean zehar, ERAIKAL BERRIAKen enpresa-topaketan barruan, honako gaiok jorratzeko asmoa dago:

- Kalitatea kudeatzea: eraikintzaren enpresetako ISO 9000 ziurtapena.
- Ingurugiroa kudeatzea: legezko eskaerak; zer ekartzen dion ISO 14001en arabera kudeatzeak eraikintzaren enpresari.
- Obretako arriskuak prebenitzea: legezko beharkizunak eta borondatezko beharkizunak.
- Egoitza-eraikintzako eragin akustikoa: arautegiak eta beharkizunak.



5. Encuentros empresariales

Dentro de las actividades del programa Eraikal para la promoción de la gestión de calidad y mejora continua en las empresas del sector de edificación residencial de la CAPV, está previsto llevar a cabo **encuentros empresariales** en torno a los aspectos considerados de mayor importancia para el sector.



En estos encuentros contaremos con participantes de relevancia y experiencia que aporten el valor y respondan a la demanda informativa de los técnicos y empresarios que asistan a los mismos.

La última edición del Informe del Sector de la Construcción en la CAPV de Agosto 2000 se hace eco de la necesidad de realizar esfuerzos importantes en los aspectos relacionados con la mejora de la gestión de calidad como del medio ambiente y la prevención de riesgos laborales.

Por esta razón, a lo largo del año 2001, y dentro de los encuentros empresariales de NOTICIAS ERAIKAL, está previsto abordar los siguientes temas:

- Gestión de calidad: la certificación ISO 9000 en las empresas de construcción.
- Gestión medioambiental: exigencias legales; qué aporta la gestión según ISO 14001 a la empresa de la construcción.
- Prevención de riesgos en obras: requisitos legales y requisitos voluntarios.
- Impacto acústico en la edificación residencial: normativas y requisitos.

6. Hemeroteka

Guay-ren higiezin-atariak eraikintzako materia- len B2B egingo du.

Guayk (<http://www.guay.com>) abian jarritako higiezin-atariak, **Urbaniza.com** (<http://www.urbaniza.com>) delakoak, enpresen arteko eraikintza-materialen salerosketa elektronikoa burutuko du. Horretarako, Gasteizko enpresa hori **Tubos Reunidosekin** (<http://www.tubosreunidos.com>) elkartu da. Tubos Reunidos euskal bazkunak eskumendeko azpiegitura- eta logistika-enpresa garrantzitsu bat du.



Urbaniza.com-eko kide biek 500 milioi inbertitu dituzte, 2001era arte beste 300ekin zabalduko direnak. Atariak, 40.000 higiezi-
neko datutegi bat duenak, baliagarria izan gura du bai etxea bilatzen duten norbanakoentzat bai beren eskaintza Internet bidez ezagutarazi gura duten higiezin enpresentzat

Ekonomia Ministerioa eteei herri laneko eraikuntza atzitzea mugatzeko aukera aztertzen dabil.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioak herri lanaren arloko operadore guztiei Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorren Aurreproiektua bidali die. Lege horren arabera, praktikan, Gobernuak 2000 eta 2007 bitarteko epealdirako programaturako inbertsio-pakete garrantzitsutik kanpo geratu ahal dira eraikintza-enpresa txiki eta ertainak, lurralde eremukoak bereziki. Testuaren bitartez kolpe batez askatu gura da Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina (2000ko ekainaren 16an onetsia) 1975eko Araudi Orokor dagoeneko zaharkitutik eta indarrean dauden xedapen arau-emaile-rik gehienetatik, bere hitzaurrean aipatuta dagoen bezala. Horretarako, Ministerioak eraikintza-enpresei bidali dien Aurreproiektuak herri lanetan lehiari aritzen diren enpresak sailkatzeko irizpideak aldarazirik ditu, lehiaketarik interesgarrienetara sartzeko beharrezkoak gogortuz. Horrela, zirriborroa aplikatzen, lizitazioarako azpitaldean (esate baterako, errepideetan) 1.600 milioi pezeta baino gehiagotako kontratuak egin dituztela egiaztatzen duten enpresek bakarrik jasoko dute atal horretako sailkapen mailarik altuena. Eteotariko asko eraikintza zehatzetan espezializatu direla kontutan harturik, haiek beren jardueraren segmentu horretan bakarrik hazi ahal dira; eta gainerakoak birkontratari bihurtu ahal dira, eta hedatzeko aukera askoz urriagoa dute.

6. Hemeroteka

El portal inmobiliario de Guay realizará B2B de materiales de construcción

Urbaniza.com (<http://www.urbaniza.com>), el portal inmobiliario puesto en marcha por **Guay** (<http://www.guay.com>), realizará a finales del año comercio electrónico entre empresas (B2B) de materiales de construcción. La firma vitoriana se ha asociado para ello con **Tubos Reunidos** (<http://www.tubosreunidos.com>), una compañía vasca que tiene una importante filial de infraestructura y logística.

Los dos socios de Urbaniza.com han invertido 500 millones, que se ampliarán hasta el 2001 con otros 300. El portal, que ya contiene una base de datos de 40.000 inmuebles, pretende ser útil tanto para particulares que buscan piso como para inmobiliarias que quieren dar a conocer su oferta a través de la Red.

Economía estudia limitar el acceso de las Pymes a la construcción de obra pública.

El Ministerio de Economía y Hacienda ha remitido a todos los operadores del sector de la obra pública un Anteproyecto de Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas que puede dejar fuera, en la práctica, a las pequeñas y medianas constructoras, fundamentalmente de ámbito territorial, del importante paquete de inversiones programado por el Gobierno para el periodo 2000-2007. El texto pretende desvincular de un plumazo el Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado el pasado 16 de junio, del ya obsoleto Reglamento General del año 1975 y de la mayor parte de las disposiciones reglamentarias vigentes, como indica en su preámbulo. Para ello, el Anteproyecto que ha remitido el Ministerio a las constructoras modifica los criterios de clasificación de las firmas que compitan por una obra pública, por la vía del endurecimiento de los requisitos para acceder a los concursos más interesantes. Así, de aplicarse el borrador, sólo las empresas que acrediten haber realizado contratos de más de 1.600 millones de pesetas en el subgrupo a licitación (por ejemplo, carreteras) recibirán el grado de clasificación más elevada en ese capítulo. Teniendo en cuenta que muchas de estas Pymes se han especializado en determinadas construcciones, se verían condenadas a crecer sólo en ese segmento de su actividad y a convertirse en subcontratistas en el resto, con muchas menos posibilidades de expansión.





ERAIKAL BERRIAK en lehenengo zenbaki honetatik aurrera EHAeko eraikintzako enpresen eskuetan jarri gura dugu itaun-ontzia: eraikal@ej-gv.es

Zerbitzu honen bitartez, enpresei beren beharrezan eta iradokizunak adierazi edo itaun tekniko espezifikoa egiteko bidea eman gura zaie.

Euskal Herrian kokatuta dauden enpresek edo norbanakoek bitarteko hau erabili ahal dute beren itaunak eta iradokizunak agertzeko. Zerbitzu honen oinarriko ezaugarriak honakook izango dira:

● **Alkantzua:** kalitatea eta ingurugiroa kudeatzearen, arriskuak prebenitzearen edo eraikintzaren arloa etengabe hobetzearen gaiekin loturiko itaunak.

● **Kontsultaren formatua:** itauna posta elektronikoen bitartez idatziz egin beharko da eta itauna egiten duen pertsonak bere identifikazio-datuak eman beharko ditu, honakook:

- Izen osoa.

- Enpresa.

- Bere enpresako kargua.

- Berarekin harremanetan jartzeko telefonoa edo helbidea.

● **Erantzunak:** ERAIKAL BERRIAK zerbitzuak itaun guztiei erantzuna gehienez lau eguneko epean emateko konpromisoa harturik du. Berak itaunari behar bezala erantzuteko denbora luzeagorik hartu behar bada, edo itaun hori ERAIKAL BERRIAK itaun-ontziari jaramon egiteko alkantzua-aren barruan sartzen ez bada, horren berri jakinaraziko zaio itauna egin duen pertsonari, eta lagungarria izan dakikeen orientazio bat emango zaio, ahal bada.

Erantzunak orrialde bana beteko dute, gehienez, Word-eko testuaren formatuan edo posta elektronikoen editorean bertan. Erantzun guztiak emango dira, oro har, erabiltzaileak bere itauna egiteko erabili duen e-mail-helbidearen bitartez.

Itaun-ontziaren bitartez erantzun gura zaie enpresek egin ditzaketen galdera guztiei. Hala ere, komenigarria da gogoratzea ezen ontzia ezin dela erabili enpresako aholkularitza-lana ordetzeko.

“ERAIKAL BERRIAK” informazio-aldizkariak postaren bidez jaso nahi baduzu, bidali zure eskaera itaun-ontziaren bidez “eraikal@ej-gv.es”-era Hartzaile Enpresa eta Helbidea adierazten.

A partir de este primer número de NOTICIAS ERAIKAL, ponemos a disposición de las empresas de la construcción de la CAPV el nuevo servicio **buzón de consultas: eraikal@ej-gv.es**

El objetivo de este servicio es el de proporcionar un medio a través del cual la empresa pueda expresar sus necesidades, sugerencias o consultas técnicas específicas.

Cualquier empresa o particular radicado en el País Vasco podrá utilizar este medio para realizar sus consultas o sugerencias, y las características básicas de este servicio serán:

● **Alcance:** Consultas relacionadas con temas de gestión de calidad, medio ambiente, prevención de riesgos o mejora continua en el sector de la construcción.

● **Formato de la consulta:** Deberá realizarse por escrito a través del correo electrónico, y será necesario que la persona que realice la consulta se identifique, indicando:

- Nombre completo

- Empresa

- Cargo que ocupa en la empresa

- Teléfono o dirección de contacto

● **Respuestas:** En un plazo máximo de cuatro días, el servicio NOTICIAS ERAIKAL se compromete a dar una respuesta a todas las consultas. Si la consulta requiere más tiempo para su resolución, o no entra dentro del alcance de atención al buzón de consultas de NOTICIAS ERAIKAL, se le hará saber a la persona que la haya realizado, tratando de dar una orientación que pueda ayudar.

Las respuestas ocuparán como máximo una página en formato de texto de Word o en el propio editor de correo electrónico. Todas las respuestas se realizarán por norma general a través de la dirección de e-mail que el usuario haya utilizado para realizar su consulta.

El buzón de consultas tratará de responder a todas las cuestiones que las empresas puedan plantear, no obstante, es conveniente recordar que el buzón no es utilizable para sustituir la labor de consultoría en la empresa.

Si usted desea recibir por correo los boletines de información “NOTICIAS ERAIKAL”, envíenos una petición a través del buzón de consultas eraikal@ej-gv.es indicando Destinatario, Empresa y Dirección de Correo.

